

Manuel Bastida
Azpeitia, Gipuzkoa (1923)

Aurkibidea

Biografia

Azpeitiko Urrestilla auzoan jaio zen 1923. urtean. Baserriko bizimoduaren gaineko azalpenak ematen ditu, batez ere fruta-arbolei buruzkoak. Soldadutza Donostian eta Orion egin zuen.

Zintak

AZP-008

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bastida, Ana
- **Data:** 1992-01-01
- **Iraupena:** 24 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Transkribatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

Pasarteak

1. Urrestilla herri famatua 'Keixeta'ri esker

- **Erref:** AZP-008/001
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Urrestillaren kokapena. Garai batean herri ezaguna izan zen, bertako Jose Aranburu & Keixeta aikolari famatuari esker. Apustu asko irabazia, mutil jator eta adarjolea zen Keixeta.

Transkripzioa

- Urolako herri txiki bat da. Hiru kilometroa o hola ta. Leno bastante famosu're bazan. Aixkulaye're auki gendun onen-onenetakue herriyen, "Keixeta" esaten ziyobena. Eztakit... hogeita zenbat joko jokau ta danak irabazi. Ehundoko gizon jatorra zan, gaiñea. Izugarri bromosue ta. Beti txistik kontatzen ta jarduten zun. Hementxe bizi zan Urrustilllen ondun. Hortxe dao ondiken haren basarriye. Haren familikuk hortxe bizi die ondik.

2. Umetako pikardiak; fruta-arbola ugari Urrestillan

- **Erref:** AZP-008/002
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:00:50. **Bukatu:** 00:01:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserrria » Baserriko lanak » Baratztea eta soroa
- Baserrria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Urrestillan zuhaitz eta jardin ugari zeuden: zumarrak, udareak... Gaztetan, inoren lur sailalara sartu eta pikardiak egiten jarduten ziren. Sagastiak ere ugari ziren eta sagardo asko egiten zen Urrestillan, baita Manuelen etxean ere.</p>

Transkripzioa

- Bertan, berriz, herriyen oin bezelako zea ez zan. Arbola asko ta. Ingurun bazin bi zea... oin'e badaure, baiño... hola itxitura bateko jardiñek holakuek. Baten, txakur haundi bat eoten zan, ta mutil koskorak harea jun nahi, baiño harea ez giñen sartzen. Bestin bai, bestin txermenak eta holakuek eoten zien ta ene... guk iten genduzen pikerdiyek han! Txermena ta, arana ta... Ja-ta mutil koskor zarra sartute... Gero, jakiten zeбенien maixuek esan ta maixuk "bai, a castigar". [...] pasa gendun earrak. Gaiñontzien, arbolie, ba, oingo aldien arbola zea... asko zan; lizerra ta, zumarra ta, intxorrek asko ta, sagarre're bai... Sagarra kantidadie... danetiken, gaiñea. Sagardue iteko're bai. Sagardue're asko iten zan. Geuk etxien sagardo asko iten gendun. Etxien genduken tolarie sagarrak eta zea eiteko...

3. Sagardoa nola egin

- **Erref:** AZP-008/003
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:01:42. **Bukatu:** 00:02:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Etxean dolarea zeukaten. Lehenengo sagarra bertan jotzen zuten, gero behera erortzean tina batean estutu eta horrela egiten zuten sagardoa. Ondoren barriketan jartzen zuten, gero handik botiletara pasatzeko.

Transkripzioa

- Sagardue're asko iten zan. Geuk etxien sagardo asko iten gendun. Etxien genduken tolarie sagarrak eta zea eiteko... Lelengo, matxakan sagarra jo, ta geo, behera erotzen zan. Beheyen ixtutu, ba, zea baten... tiñe baten, ta geo, sagardue ein ta barriketan ipiñi. Geo, barrikak pixkat zea iten zienien, danak botillatan sartu. Batzuten, goxue ta "earra zioz hontxe ta... sartuko al deu ez al deu... Ba, bazpare sartu eingo diau".

4. Urrestillatik Azpeitira lanera

- **Erref:** AZP-008/004
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:03:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

<p>Urrestillako gazteak Azpeitira joaten ziren lanera bizikletaz. Damaso eta Agirre ziren lantegi ezagunenak. Astelehenetik igandera arte egiten zuten lan. Igandean erromeriara joateko alpagatak erosteko adina diru ateratzen zuten.</p>

Transkripzioa

- Geo leno Urrustillen dana basarri koskorra ta. Batzuk taillerrea Aixpeitire, geyenak gazte jendie, danak bizikletan illeran jarri ta Aixpeitire batzuk... Damasonekue ta Agirrenekue ta bi tailler zien hola inportante samarrak... Ta geo ertendakun danak batea itxeakun. Kamiñue bete-bete-betin. Ez zaon kotxiek harrapau bildurriken, ez zan ibiltzen da! Ta hor bazaon Urrustillea iye ailleauen aldapa txiki bat, hutse aldapie... danak jaitsi han ta kontubek esanez aldapien goraiño oinez etorri. Etorri Urrustillea, bazkaldu ta atzetik danak batea... atzea taillerrea. Oin baiño egun luzeo izaten zan ordun. Xei terdik arte o uste ze jarduten zan negun. Uderan'e... beatzi ordu, hamar o behintzet. Ta jaire arte e! Astelehenetik hasi ta jaire arte! Ez zan izeten "sabado inglés" ta holakoiken. Aitu bai "sabado inglés" ta izeten emen ziela, baiño iñok ez zakiyen hemen. Jaire arte. Aste guztiye taillerrien pasau ta jairako nahiko dirue. Alpargatak erosteko lain batzuk! Ta egualdi txarra iten bazan... Gogun daket geuk'e Oñetzea jun ber gendula erromeire ta...

5. Erromeriara oinutsik alpargatak ez bustitzearren

- **Erref:** AZP-008/005
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Urrestilla ondoko Oñetze auzoan gertatutako pasadizo bat kontatzen du: erromeriara hanka hutsik joandakoa, alpargatak ez bustitzearren. Festetarako poz handia izaten zuten. Nahiko ondo bizi ziren.</p>

Transkripzioa

- Aste guztiye taillerrien pasau ta jairako nahiko dirue. Alpargatak erosteko lain batzuk! Ta egualdi txarra iten bazan... Gogun daket geuk'e Oñetzea jun ber gendula erromeire ta... ebiye hasi ta besteku ta gu biyok ta: "Hi, oin alpargatak bustite ze in ber diu?" ta "hanka-hutsik jungo gaituk!". Erantzi alpargatak eta hartu eskuen ta... iyiye Oñetzeaiño... Oñetz zea da... barriyo bat. Urrustil ondun daon barriyo bat. Harea ailleau giñen, iye ailleau giñen... han jantzi alpargatak. Han ibili ta etxea etortzeako busti ta puskau ta. Hurrengo astin... Bagendun bat, lagun bat, "Keixeta" esan detan horren ondokue Daniel zana o... Goizin erosten zitun alpargatak toki baten; toki jakiñien eoten zien. Ta meza ondun, bigarren meza ondun... alpargatak erosten zitun eta atsaldien beste parie erosten zun, danak puskatzen zitun atsaldeako ta! Gaiñontzien, ba, San Juanetako poza ta're oin baiño haundiyo ordun! Ez, ba, gauze ikearri eongo zalako gaurko eunien konparaute baiño! Meza nausiye ta erromilletie gonbi... zea bedeinkaute. Ta geo, arbolie ipiñi. Ta arbolie ipintzeko poza. Ta San Jun suk eta... Ba hortxe, Urrustillen... bestela jendie nahiko ondo bizi zan! Oin'e bai e! Oin'e badauzkeu geure erronkak!

6. Baserriko jaki goxoak

- **Erref:** AZP-008/006

- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:06:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Orduan dena baserrian egiten zen; ogia, adibidez. Ogia nola egiten zuten azaltzen du. Artoa ere egiten zuten, baita sagar erreak ere. Gustuko zituen orduko otorduak.</p>

Transkripzioa

- Gaiñontzien iual-iual. Basarri asuntun, berriz, ba, dana etxin iten zan ordun ta! Labesube konparaziyo batea. Aste guztiko ogiye etxien. Gu bezela bestek e! Ta labesube ingo bazan, egur iherra perparaute euki. Ta geo, labie piztu ta... hortako lelengo ogiye prepara ber. Masie in da emakumie ja-ta eskuk... ez dakit nola jarduten zebe. Lagamiye (legami) bezperakotiken, bezpera illuntzien beratzen ipiñi, hurrengo goizien hure bitu-bitu-bitu ein ta lagami (legami) horrekin ogiye nahastu... Ta geo mutil koskor bat o beti izeten zan... ta opille esaten zitzeko, txiki-txiki batzuk ein in [zituban] ehundoko dibujukin. Hure izeten zan ogiye zapaltzeatik. Ogiye zapaltzie da hankak garbi-garbi ein udetan ta beheye ikutu be eskuetan hartu ta ipiñi... zeien ogiye iten zan aska hortan ta hantxe segi “zipi-zapa, zipi-zapa, zipi-zapa” ogi hori harro-harro in arte. Ta gero propiñie hure iten zunei. Gero, hartaka artue’re iten zan. Ta artue iten zan masien ein ta ogiye baiño ordu erdi bat lentxo o... labin sartu. Harek denbora gehitxo ber izeten zun ba! Labin sartu. Ta geo ogiyek itten zien sasoien errege-sagarra izeten zan asko hemen. Oin gutxi dao baiño. Errege-sagarra tarterie o hortako zea haundi bat bete-bete inda ipiñi ta hure sartu labien. Hayek izeten zein gauze gozuk. Ez pentsau oingo ekonomikan hola erretzeieniken ta e! Sagarrak gozuek! Ta gero iten zan sagar hoyek... ba, puxkat jaten zan ta lagatzen zein labin bertan ta... ondorengo egunetan jun ta hartu ta jan. Hartu ta jan hotz-hotza, baiño bai gozue labesue!

7. Hiru hilabetez artzaina etxean

- **Erref:** AZP-008/007
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:06:22. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

200 arditik gora zituen artzain bat eduki zuten etxean eta gazta hark egiten zuen. Gazta nola egiten zuen azaltzen du. Aste Santuan alde egiten zuen beraien etxetik, 3 hilabete pasa eta gero.

Transkripzioa

- Geo artzaye. Artzaye guk leno ez gendun behiñe euki, baiño gero hori. Artzaye hamentxe gure etxin erretiratzen zan. Artalde haundiye zeuken. Berrehun ardi baiño geyo zauzken. Illuntze... Mutil gazte bat zan artzaye.

Ta illuntzien, ba, goizien bituteko esnieki... zea iten zun gaztaye illuntzin'e bai ta goizin'e bai. Baiño gaztaye iten gure etxeko andri ta txokaute eoten zien gaztaye ze txukundarekin ein leikien. Esne haure lelengo bitu ta dana pasaran pasau. Gero, aukitzen zun beste pasadora haundi bat eta hareako iten zuen asune bitu. Asune ez dakit... belar zea... eskuk eta erretzeitun belar berde hori... Bitu ta hure ipiñi enbutun. Ta geo, gaiñea bota esnie ta gaiñea esnie bota ta jo-ta dana garbi-garbi-garbi-garbi iten zun esne hori. Gero, botatzen zion gatzaye o dalako hori ta... gaztayek earrouek iten zitun! Ta geo ontziyek garbiu, berriz, bueno hure da brillue hure. Ixpilluei bezelaxe ikusten ziela ipintzen zitun ontzi danak. Gero, Aste Santun... alde hortan eo... laiste, artzayek alde in iten zun. Ya mendire jutun zien hayek'e. Hemen hiru bat hilebete o hola pasatzen zitun.

8. Aste Santuko ospakizunak

- **Erref:** AZP-008/008
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:09:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Aste Santuan jende asko izaten zen. Ostegun Santuz, eguerdian mezetara eta arratsaldean sermoira joaten ziren. Ostiralean, berriz, kilometro inguruko buelta egiten zuten kalbarioak eginez eta baita arratsaldean ere. Hilerriraino joaten ziren eliz-doinuak kantatuz eta ondoren gizonak sagardoa edatera joateko ohitura zuten. Gaueko "funtzioa" ez zen egiten garai hartan, gerora hasitako ohitura da.</p>

Transkripzioa

- Gero, Aste Santun... alde hortan eo... laiste, artzayek alde in iten zun. Ya mendire jutun zien hayek'e. Hemen hiru bat hilebete o hola pasatzen zitun. Geo beak alde iten zunien, ba, hemen Aste Santuen... ze esangoizut hemengo Aste Santuko kontue. Jende asko izeten zan funtziyun ta! Ostegun Santu eunien sermoera atsaldin. Eguardiye'n bai. Eguardiye'n geyenien meza nausiye o... meza izeneko hori. Ez emen da nausiye baiño. Ta gero, atsaldin funtziyue. Gero, ostirelin eiten zan Urrustillen bueltan hor... kilometro bat ingurun o... atzeko bide batetik bueltan ostirel goizin kalbayuek. Ta geo, eguardiye'n funtziyu izeten zan ta atsaldien berriz galbayuk itten zien. Kanposantura jutun giñen. Illeran jarrita galbayun kantauez-kantauez kanposanture jun. Ta han atsaldie han akabatzen zanien sagardandeye bazan Urrustillen... ta danak, emakumiek ez, baiña gizonetzuek antxoa jan ta sagardu edan, antxoa jan ta sagardu edan. Traje berriye estrenau ostegunien ta ostirelin geyenak mantxaute izengo zeben itxea... traje hori... sagardukin. Geo, ez zan itten, ordi, gabeko funtziyo hori. Ez zan iten ordun. Hori gero hasi zan. Baiña aurten'e jende asko ibili da zea hoyetan danetan bai galbayotan, bai gabekotan ta... Daneako lain dao nunbait jendie ta kanpoa jun ez danak nunbait herriye'n denborie pasau ezin de o... Ez dakit elizea juteatik o... Jende asko ibili da aurten e!

9. Fruta-arbolen txertaketa

- **Erref:** AZP-008/009

- **Iraupena:** 0:05:40. **Hasi:** 00:09:20. **Bukatu:** 00:15:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

<p>Santa Ageda bezperan gerezia txertatzen zuten baserrian. Nola egiten zuten azaltzen du. Aita zenarekin joaten ziren horretara. Martxoaren azken aldera sagarrarekin gauza bera egiten zuten. Arantza zuriarekin ere egiten zuten txertaketa, mizpirak etor zitezen. Beste fruta batzuk ere aipatzen ditu. Mahatsa, menbriloa, udarea, etab. Eguraldiak sortzen dizkien aldaketak.</p>

Transkripzioa

- Geo, frute asuntu're oin baiño geyo sayau're ustet eiten zala. Oin aspaldiko urtetan frakaso eman iten du bai! Lorie izeten da, baiño egualdi txarra dala ta ez dala ta... Jun den urtin oso gutxi izen zan. Leno, gogun daket, gure aitte zanak eta: "Keixi txerta ber da!". Ta Santa Agedatan, bezperan eo, Santa Agedak hilen biyen o hilen bostin izeten die, otsailin. Keixi txertatzeko eoten zan hemen txokolateri moduko zea bat... ta surtin ipiñi, ta han berotu iten zan, erretxiñe ta ez dakit ze... Ta nahastute halako likido zea bat iten zan. Pomada bat bezela iten zan. Ta suten bero-bero ein ta geo keixi txertatzeko, ba, zein arbola zan earrena leno... Keixe klase asko zan, zein arbola zan earrena, harexi kendu mentue ta... Gu mutil koskorak aitta zanakin atzetik hartu txokolatera hori ta han juten giñen ta iten zun zerrotikin lelengo moztu adarra. Adar zuzen samarra. Gero, erdiyen pitzau burni batekin, trintxikin o. Ta geo, mentuiyek ipiñi. Mentuiyek izeten zien, ba, hor... hamar zentrimetro inguruko txotx batzuek, baiño kimube zaukebenak ber izeten zezen ta kimu harez gora txorrotx-txorrotx ein ta hayek sartu. Bi bakoitzei. Gero igurtzi pomada horrekin dana bueltan-bueltan, ta gero, trapu batekin lotu berriz haizeik hartu ez dayen. Hori eiten zan keixi lelengo ta gero sagarra. Sagarra geotxo iten zan jeneralin. Martxuen azken aldea o hola. Baiña sagarrai're, keixiei ta bezelaxe ya lan berdin samarrak in ber iten zizkon. Moztu ta len esan detan bezela sagarrik edarrena zein dan ikusi. Batzuek [...], sakon sagarrak, beste batzuk errege-sagarrak, beste bat atxabaleta-sagarra o esaten ziyobena're bazan izugarri earra. Hayek eta... sagar hoyek'e txerta iten zien halaxe. Gero, beste bat zan arantzie, arantza zuriye o esaten zakona... Han mixperie ipintzen zitzekon hari. Arantzatik etortzen zan mixperie. Arantzie moztu, arantza zuri haundi hori, ta mixperien mentue ipintzen zitzeizkon. Beste hoiei bezelaxe, moztu ta pitzau ta beren pomada horrekin. Beste bat'e bazan, berriz, idi-sagarra esaten zitzekona. Oin gastau da. Oin ez da ikusten hemen. Baiña haura menbrillu iteko ta gastatzen zan. Izugarri earra zan. Jateko ta ez zan ona, baiña bestela oso earra zan. Ta oin ya desapareziute dao. Hemen ingurun ez det ikusi're iten nik oin hure. Ez dakit ze iten [...]. Ta frute asuntun... mahatsa're bai. Mahatsa geuk'e badeu ta oindik'e badeu. Mahats moskatela, itxeko paretan. Ta moztu ta sufratzen ta jarduten deu ta urte batzuten dexente ona hartzen deun, gaiñea, mahatsa! Ta aurreoko baten jardun gendun esaten mahatsak urte askoko biziye izengo dula, gaiñea! Horrek onuzkeo hirurota hamar urte baditu ta ondiken e... ondiken sasoeke mahatsa dao. Txermena're, mixperie bezelaxe arantzatiken zea iten da... Hure're nun daon earrena ikusi ta... Txermenak klase asko die: bat behintzet San Migel txermena o esaten zakona, oso earra. Beste bat negu-txermena hure ya gero heltzen dana da, baiña ale haundiye ta izugarri earra da. Hoyek'e,

sagarrai ta bezelaxe klasie, zeuk nahi dezun klasie... arantzie moztu, pitzau ta sartu zea hoyek eta... gero, bestiei bezelaxe uendu (ukendu) o horrek ein ta ipiñi ta... Txermenena, gaiñea, beste eozar gauze baiño errezoue zan zea iten. Bestiek geyo frakasatzen zezen, txermenak eta baiño. Gero, gaiñontzien... dana mixurkie ta, melokotoie ta, arana zan gurin asko. Baiña aranak oin ez die ikusten klase hau, klase haure. Aran klauri gorri batzuk bazien, hor arrautzin formako luze batzuk. Ta nik ez dakit desagareziu... Hure zan gure ama zanak eta beti plaza eman oin zezen saltzea. Astin bi aldiz o hiru aldiz eo juten zien. Goizin bitu ta otarrakaie hartu ta... beste klaudi berdi're bai, baiño gorri harek zun famaik geyena! Ya hare desagareziu in zan! Ta gero, izen die urte batzun hamen landarie sartueatik... pixkat hasi ta ihertu. Keixi're bai. Hemen gu gaztiek giñela keixe arbolak izugarriyek zien! Hogeia lagun jiyota iual ibiliko zien han besteko egon zan keixa baten gaiñea. Batzuk honutzouen ta bestik honutzouen ta... Ze keixa pill! Gure etxie altuba da, baiño gure etxin doblie baiño altuo zan gure etxe parin gora. Keixi asko izaten zan ordun. Ta oin urte hauetan udeberri txarra o arbolak'e gutxi daure e baiño... Udeberri txarra iteula, lori ta hartzeu... ta geo jotzen du... Jun den urtin izotza in zuen ta danak galdu zitun. Intxaurre daukeu guk asko, baiña intxaurre're hoixe in ziyon jun den urtin. Aleik'e ez genduken!

10. Soldadutzan Donostian eta Orion

- **Erref:** AZP-008/010
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:15:00. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>21 urte bete aurretik soldadutzara joan zen eta Donostian eta Orion egon zen. Orduko kalabozoetako kontuak kontatzen ditu. Asistente lanetan jarri zuten aurrenetik eta gerora paisano ibili zen. Hasieran bizikletan ibiltzen zen eta gero treneko bonua atera eta etxera egunero bueltatzen zen. Orduko gertaerak kontatzen ditu. Otordua kanpamentuan egiten zuen eta lotara hango ezagun baten etxera joaten zen. Soldadutza osoa bi lagunekin pasa zuen.</p>

Transkripzioa

- Soldau're jun gitxiñen ta! Ordun... pixket gazte samar [...] gu hogeta bat urte kupliu baiño leno jun gitxunen gu. Urte hartan hogeta bat in ber. Lelengo Donostire. Ta geo, han bi hillebete o pasau ta Oriyoko gaiñea. Zarauztik Oriyoka daon tarteko kanpamento batea. Han pasau giñan denborale puxkat eta... Gero, han'e nahiko okerra. Egun baten ez zakit, ba, nik ondo ez ibili o ze in o ze... kapitanak illi moztu! Ta kalabozun sartu ta lau eunin euki! Han kalabozu izeten hunan txapitula zahar bat. Tejabana zahar bat. Ta handik ertendakuen berriz hots ein zean. Nere bildurre. Zertako ete zan: "Ba, berriz'e ein izango diat zeoze". Aber asintente jartzeik nahi al nun galdeu zeanan. Ni ja-ta txokaute: "Honbre, beak hala iruitzen bazitzekon". Hortarako, ofizininistie bilbotarra zeonan ta bilbotar harek esan ezkondu in ber zula ta asistente bat hartu nahi zebela... bizikletan ta zekiyena ta bizikletie zaukena ta nahi zukiela... Harek esan: "Ba, hortako Bastida bezelakoik ez da konpaiñi guztiyen!". "A, ez?" ta "Ez". Baiña ez zean nei zer esan ofizininistik. Hala, hori esan zienin: "Bueno, beak

hala nahi bazun". Bueno, poltsikotik eta ta itxiko giltzie eman zeanan. Abitaziyue nola zakeben hartute Bastida zea... alkilerzale hori bizi zen itxe hartan bertan. Maletan ailleauko ziela Bilbotik andregayenak ta hayek itxe hartan sartzeko. Hiruretako trenien ailleauko ziela, hayek itxe hartan sartzeko. Hala sartu ta... gero esan zean giltzi nik aukitzeko beti. Hala beti auki niñen soldautze guztiyen haren giltze hori poltsikun Geo ezkondu in ber zula, ba, ta... ezkondu hunan ta ni eun batzutan jayekin etxea permisukin. Gero ezkondu zaniyen etorri hunan ta : "Oin ze lan dauket?". Ta esan zeanan: "Oin, ba, nahi baek paisano ibili, ez daukek soldau jakin beharriken". Ta Getaiko baserri batetik esnie ekartzen zonan autobuse... ta aubusekin esne hori hartu ta ekarri. Ta gero, gora kanpamentura jiyo ta ogiye ekarri... itxe hontako. Ta gero gaiñontzien-gaiñontzien, zeoze apartekue baldin bada [...]: "baiño hoixe dazkeu oingo lanak". Hala, banatxabillen denbora askun ta itxin lan asko zaola ta pentsau nun egunero etortzen hasi ber nula etxea. Hala, bizikletan eunero etorriyez ibili nitxiñen denborale baten. Ta gero, esan nitxonan: "aber garanti bat". Bizikletan aspertu in nitzela ta treneko abonu ateako nula. Merke ertetzen zila oso ta. "Baitez" ateatzeko. Xei hilabeteako trenan abonu atea niñan. Hutse kostatzen zitenan! Goizin jun ta hango zea hoyek iten nitxiñen ta atzea hamaike terditeko trena hartu ta etxea etorri. Etxin pasatzen niñen atsalde guztiye. Hola ibili zitzen denborada baten ta geo negu etorri zanin ba... Portaleko... nik ezautzen nitxiñen Zamaiko Miel ta Prudentxi hamen Urrustilgo matrimoniyo bat, baiño beak ni ez natxinan ezautzen. Egun baten, jai atsalde baten, han ikusi ta: "Honbre, Prudentxi! Zela [...] gu?" "Hi nungu haiz ba?" "Ni Kataingua". "Ene Kataingua! Eze ber baek behintzet etorri hai gure etxea!", esan zeanan. Bai nik gogun hartu'e! Ta geo, ondorengo baten esan nitxonan: "Aizu, hola ta hola esan dit nahi deten lo iteko ta zea... ta lo iteko tokiye pagakoizut nik eta emango al zizuke?". "Jesus, emango ez diat ba! Bai, etorri hadi!". Harea lo itea juten nitxiñen. Porke jan iten niñen kanpamentun bertan. Ta geo, pixkana-pixkana jaten hasi han ta geyo kanpamentura ezta jun'e. Harrezkeo beti Miel ta Prudentxi horrekin pasa niñen nere soldautzie dana.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com